

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

**CLIL: Egungo munduan hizkuntzak eta edukiak batera ikasteko
ikuspegi metodologikoa**

Egilea: Asier Goikoetxea Ibañez

Zuzendaria: Julian Maia Larretxea

Leioan, 2014ko ekainaren 14an

© 2014, Asier Goikoetxea

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| Sarrera..... | 4 |
| 1. Hezkuntzaren helburua, oinarrizko konpetentziak garatzea | 5 |
| 1.1. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna..... | 5 |
| 1.2. Zergatik CLIL? | 6 |
| 2. Zer da CLIL?..... | 8 |
| 2.1. CLIL-ak konbinatzen dituen lau elementuak..... | 9 |
| 2.2. CLIL klaseetako printzipio, teknika eta estrategiak | 10 |
| 2.3. CLIL metodologiaren onurak | 11 |
| 3. CLIL metodologiaren sortzea eta garatzea..... | 11 |
| 3.1. CLIL metodologiaren sortzea eta garatzea Europan..... | 12 |
| 3.2. CLIL espainiar estatuan | 14 |
| 3.3. Euskal Autonomia Erkidegoko egoera | 16 |
| 3.3.1. Gobernuaren ekimenak..... | 16 |
| 3.3.2. Ikastolen elkarteak | 18 |
| 4. CLIL ikastetxe batean | 19 |
| 4.1. Instituzioaren jarrera | 20 |
| 4.2. Ikasleen arabera | 21 |
| 4.2.1. Galdetegiaren ezaugarriak | 21 |
| 4.2.2. Galdetegiaren helburua..... | 22 |
| 4.2.3. Galdetegiaren erantzunak | 22 |
| 4.2.4. Galdetegiaren ondorioak- ikasleen iritzia..... | 23 |
| 5. Lanaren ondorioak..... | 24 |
| BIBLIOGRAFIA | 26 |
| ERANSKINAK | |

CLIL: Egungo munduan hizkuntzak eta edukiak batera ikasteko ikuspegi metodologikoa

Asier Goikoetxea Ibañez

UPV/EHU

CLIL (Content and Language Integrated Learning) izeneko ikuspegi metodologikoak hizkuntzak eta edukiak batera ikasteari egiten dio erreferentzia. Egungo gizartearen ezaugarriengatik, hau da, globalizazioa eta teknologien eraginarengatik, internazionalki komunikatu beharra sortu da eta horregatik atzerriko hizkuntzak ikas-irakastea ezinbestekoa bihurtu da. Behar horri aurre egiteko metodologia da CLIL. Lan honetan aztertzen dira, CLIL curriculumean non kokatzen den, metodologiaren ezaugarriak, CLILen ibilbidea Europan, Espainiar estatuan eta EAEn eta CLIL ikastetxe batean nola lantzen den. Azken honetan, gaur egun instituzioaren eta ikasleen aldetik CLILekiko eta hizkuntzen irakaskuntzekiko nolako jarrera dagoen aztertzen da, galdetegi batzuen bitartez.

Globalizazioa, hizkuntzak, hizkuntzen ikas-irakaskuntzak, metodologia berriak, CLIL

El enfoque metodológico llamado CLIL (Content and Language Integrated Learning), hace referencia al aprendizaje integrado de conceptos y lenguas. Debido a las características de la sociedad actual, es decir, la influencia de la globalización y las tecnologías, ha surgido la necesidad de comunicarse internacionalmente y por ello es indispensable la enseñanza-aprendizaje de las lenguas extranjeras. CLIL es una metodología para hacer frente a esa necesidad. En este trabajo se analiza, dónde se encuentra CLIL en el currículo, las características de la metodología, la trayectoria de CLIL en Europa, el estado Español y la CAV, y como se trabaja el CLIL en un centro educativo. En este último, mediante unos cuestionarios, se analiza la posición de las instituciones y los estudiantes frente al CLIL y la enseñanza de idiomas extranjeros.

Globalización, idiomas, enseñanza-aprendizaje de idiomas, nuevas metodologías, CLIL

The CLIL methodological approach (Content and Language Integrated Learning) makes reference to the integrated learning of contents and languages. Because of the characteristics of nowadays society, the influence of globalisation and the technologies, it is necessary to communicate internationally and, because of that, the teaching-learning of foreign languages has become compulsory. CLIL is a methodology to answer to that necessity. In this work there are analysed, where CLIL is in the curriculum, the characteristics of the methodology, the way of CLIL in Europe, Spain, and the BAC, and how CLIL is worked in a school. In the last one, based on some questionnaires, it is analysed the position of the institutions and students regarding to CLIL and the teaching of foreign languages.

Globalisation, languages, teaching-learning of languages, new methodologies, CLIL

Sarrera

Gradu amaierako lan hau ikerketa lana da eta gure ingurunean eta Europa osoan gero eta garrantzi handiagoa irabazten ari den CLIL metodologia aztertzen du. CLILen esanahia hauxe da: *Content and Language Integrated Learning*. Euskaraz, *Hizkuntzak eta Edukiak Batera Ikastea* izan liteke itzulpen bat.

Lehenengo eta behin, gaia kokatzeko, hezkuntzaren helburua zein den adierazten da. Helburu hau, egungo munduari aurre egiteko behar diren funtsezko jakintzak biltzen dituzten oinarrizko gaitasunak garatzea da. Hau ulertzea ezinbestekoa da CLILEk gaur egungo gizartean duen kokapena ulertu ahal izateko. Izan ere, CLIL, gaur egungo munduaren ezaugarriek gaitasun horietako batean eskatzen ari direnari, hizkuntza komunikaziorako gaitasunari alegia, aurre egiteko metodologia bat da. Ideia hau lehenengo puntuko bi azpiataletan ageri da garatuta.

Ondoren, CLIL zehazki zer den aztertzen da, kontzeptu zabala baita eta ez baita erraza zehazki definitzen. Gaiari adituak diren hainbat iritziak biltzen dira atal honetan eta CLILen definizioaz gain, CLIL klaseek bildu behar dituzten lau elementuak eta CLILEk ikasleentzat dituen onurak ere azaltzen dira.

CLIL zertan datzan azaldu eta gero, metodologia hau nola sortu zen, zein ibilbide egin duen eta gaur egun duen lekua aztertzen du lanak. Atal honetan, kanpotik barrurako ibilbidea egiten da, CLIL kontzeptua Europatik datorrenez, lehenengo European izan duen ibilbidea azaltzen da, ondoren Espainiar estatuan duen lekua eta azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan duen lekua. Azken hau, gure kasua denez, zehazkiago aztertuta dago.

Azkenik, CLIL lantzen duen ikastetxe baten kasua aztertzen da. Alde batetik, ikastetxean CLILEkin lan nola egiten duten aztertzen da eta CLILen aurrean instituzioaren jarrera zein den ezagutu nahi izan da. Horretarako, bigarren zikloan CLIL metodologiarekin lantzen den irakasgaietako baten arduraduna den irakasleari egin izan zaio galdetegi erdi-estrukturatu bat. Beste alde batetik, CLILen aurrean eta curriculumeko irakasgaietan hizkuntza berriak ezartzearen aurrean ikasleen iritzia zein den ere ezagutu nahi izan da, horretarako galdetegi itxi bat eginez.

Lana amaitzeko, ikerketa guztia egin ondoren ateratako ondorioak ageri dira.

1. Hezkuntzaren helburua, oinarrizko kompetentziak garatzea

Ikastetxeek eskaintzen duten hezkuntzaren helburua, ikasleek oinarrizko zortzi gaitasunak bereganatzea dira. Hau da, ikastetxeetan programazio bat egiterakoan, ikasleek programazio horren bidez oinarrizko zortzi gaitasunak bereganatzen dituztela ziurtatu behar dute, bertan biltzen baitira ikasi beharreko funtsezko jakintzak.

Euskal curriculumak horrela definitzen du oinarrizko gaitasuna: “Jakintzen, trebetasunen, jarrerren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzera egokitua, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrekotzat dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko”, eta hurrengo gehitzen du: “Hezkuntza-gaitasun orokorrak erreferentzia-ardatz nagusiak direla esan dugu; aldiz, ikasleek lortu beharreko helburuak adierazten dituzte oinarrizko gaitasunek, giltzarriak eta beharrezkoak jotzen baitira ikasleentzat. Hala, ebaluazioaren erreferentzia dira oinarrizko gaitasunak.” (Eusko Jaurlaritza, 2007-2010: 9).

Honako hauek dira oinarrizko gaitasun horiek:

- a) Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna
- c) Matematikarako gaitasuna
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- e) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
- f) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

(Eusko Jaurlaritza, 2007-2010:11)

Eskola bakoitzak erabaki behar du nola landu gaitasun horiek, haiek behar den mailan garatzeko. Horretarako, ikastetxe bakoitzak eta azken batean gela bakoitzean jarduera batzuk egiten dira, hainbat faktore modu jakin batean antolatuta. Konbinazio horri deitzen diogu “metodologia”.

1.1.Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Oinarrizko gaitasunen artean bat *Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna* da, curriculum dekretuan definitua agertzen dena (Eusko Jaurlaritza, 2010). Azken urteetan bada, gaitasun hori lantzeko European indarra irabazten ari den metodologia bat. Hau CLIL izenarekin ezagutzen da eta “Hizkuntza-komunikaziorako gaitasun” hori, beste gaitasun

batzuetako edukiekin batera lantzeko sortutako metodologia da. CLIL letrek “Content and Language Integrated Learning” esan nahi dute, hau da, hizkuntzak eta edukiak batera ikastea.

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak honako hau dio *Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna*-ren inguruan: “Gaitasun honen funtsa hizkuntzaren erabilera da, bai ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta hura ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitze eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa.” (Eusko Jaurlaritza, 2007-2010:18)

Halaber, derrigorrezko eskolaldia amaitzerakoan, ikasleek euskarari eta gaztelan B2 maila eta atzerriko hizkuntzan B1 maila eskuratu behar dutela zihoen 2007an publikaturiko curriculum dekretuak (Eusko Jaurlaritza, 2007:17-18). Atal hori ezabatuta geratu zen 2010ean egindako aldaketan ondoren, baina hala ere, erreferentzia gisa bederen erabil daitekeela ematen du.

Dena den, garbi ikusten da atzerriko hizkuntzan ere garatu behar dela hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Horrela, oinarritzko gaitasun hori, gure jendartean, hiru hizkuntzaren bidez gauzatzen da: bi hizkuntza ofizialak, eta atzerriko beste hizkuntza bat gutxienez (Eusko Jaurlaritza, 2007-2010).

Ezaguna da, bestalde, orain arte nahiko emaitza txarrak lortu direla atzerriko hizkuntzaren bidezko komunikazio gaitasunean. Hala ikusten da, 2005.urtean Europako Batzordeak egindako ikerketan, non esaten den Espainiar estatuko hiritarren %36ak bakarrik direla gai atzerriko hizkuntza batean elkarrizketa bat izateko, Europako batez bestekoa %50ekoa den bitartean (Europako Batzordea, 2005)

Beraz, mundu globalizatuari erantzuteko, atzerriko hizkuntza nazioarteko batean ere ahalik eta gaitasun maila hoberena lortu behar da (gaztelaniak ere balio handia du mundu mailan lingua franca gisa baliatzeko, baina herrialderik indartsuenekin harremanak izateko, ingelesa da gaur egun hizkuntzarik erabiliena (Crystal, 2004). Bestetik, tradizioak erakusten digu alor horretan orain arteko emaitzak ez direla behar bezain onak, eta horrek eramaten gaitu beste ikas-irakasteko modu batzuk probatzera. Testuinguru horretan kokatzen da CLIL metodologia.

1.2.Zergatik CLIL?

Esan bezala, gaur egungo mundu globalizatuari erantzuteko, nazioarteko atzerriko hizkuntza batean gutxienez, ahalik eta gaitasun hoberena lortu behar da, izan ere,

globalizazioaren eta teknologien eraginez internazionalki komunikatu ahal izateko beharra sortu da eta horretarako, atzerriko hizkuntzak menperatu beharra dago. David Marsh-ek honako hau dio horren inguruan:

Globalisation, and the impact of the converging technologies, is resulting in the formation of a new global order affecting many societies on an unprecedented scale. Because of the need to have a shared linguistic medium, English has assumed its place as the language of communication within the new linguistic global order. It is being widely developed on two levels. Firstly, it is being increasingly introduced earlier, and more extensively, in the form of language teaching. Secondly, it is replacing other languages as a medium of instruction. (Marsh, 2006: 29)

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak honako hau dio, eleaniztasunaren beharrari dagokionez:

Ezin da ahaztu XXI. mendeko gizartea eleanitza eta kulturantza dela, eta, beraz, eskolak nahitaez lortu behar dituela herritar eleanitzak. Horregatik, mundu honetan - gero eta elkarri lotuagoa, eta mugarri dituenak jakintzaren gizartea, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta pertsonen mugikortasuna— nahitaezkoa da hizkuntza ofizialez gainera hizkuntza global esaten zaienako bat edo batzuk ikastea, era horretan errazagoa izan dadin jendeak elkar ezagutzea, ideiak trukitzea eta kulturek elkar ulertzea [...]. Lehen Hezkuntzako ikasleak, hein batean, eleanitzak direnez, hizkuntza-irakasleak beharturik daude, planteatutako hezkuntza-helburuei eutsita, beren irakaskuntza-metodoak aztertzeraz eta egokitzera, eta, batik bat, hizkuntzak era integratuan lantzeraz [...]. Hizkuntzen irakaskuntzak erabileran oinarritu behar du, hau da, hizkuntzak gizartean erabiliz ikasten dira, eta komunikatzeko behar pragmatikoek bideratzen eta errazten dute kodeaz jabetzea. (Eusko Jaurlaritza, 2010: 107-110)

Gure hezkuntza markoan beraz, internazionalki komunikatu beharraren kontzientzia badela argi geratzen da. Baina fenomeno hau ez da EAE-n soilik ematen. Europar Komisiaok argitaratutako “European language policy and CLIL” liburuxkan diotenaren arabera, azken hogeita hamar urteetan hizkuntzen ikaskuntza asko hedatu da Europar derrigorrezko hezkuntzan. Liburuxkak, Europako herritarrak Europa integratu bati etekina atera nahi badiote eta eremu globalean lehiakorrak izan, atzerriko bi hizkuntzatan komunikatu ahal izatea derrigorrezkoa bihurtzen dela dio (Europako Batzordea, 2004: 2).

Baina nola aurkitu hizkuntzetarako ordu gehiago dagoeneko beterik dagoen curriculum batean eta nola egoki irakatsi nahiko berriak diren taldeei? Hemen agertzen da CLIL metodologia.

“Ikastetxeek aukera izango dute zenbait ikasgai atzerri-hizkuntza horietan irakasteko,

horretarako arautzen diren baldintzak betez” (Eusko Jaurlaritza 2007-2010: 29) agertzen da curriculumean idatzirik, CLIL metodologiari zeharkako aipamena eginez, sigla horiek erabiltzen ez badira ere. Izan ere, CLILekin, hizkuntza eduki ezberdinak ikasteko tresna moduan erabiltzen da, eta, era berean, edukiak hizkuntzak irakasteko tresna moduan erabiltzen dira. Ikasleek ikasten ari diren hizkuntza praktikan jarri dezakete aparteko klaserik izan barik. Ondorioz, CLIL arreta berezia jasotzen ari da Europan, ama hizkuntzaz gain beste bi hizkuntza eskuratzeko metodo bezala. (Europako Batzordea 2004: 2)

2. Zer da CLIL?

Aurretik esan bezala, CLIL (Content and Language Integrated Learning) edukiak eta hizkuntza batera irakastea da, baina ez da erraza kontzeptua zehaztea eta bere ezaugarriak adieraztea, CLIL kontzeptu zabala baita eta ez baita honen inguruko definizio estandarrik. Do Coyle-k, CLIL gaien eragin handienetarikoa duen adituak honela dio: ‘there is a lack of cohesion around CLIL pedagogies. There is neither one CLIL approach nor one theory of CLIL’ (Coyle, 2008: 101)

Irakaslea eta Granadako (Espainia) Plurilinguismoaren Arduradun Probintziala den Isabel Perez¹-en web orrialdean, Marshen emandako definizio hau aurkitu daiteke: “CLIL refers to situations where subjects, or parts of subjects, are taught through a foreign language with dual-focussed aims, namely the learning of content, and the simultaneous learning of a foreign language” (Marsh, 1994).

Doris Sigmund-ek, Krems-eko (Austria) irakasleak, berriz, CLILen inguruko definizioa ematerakoan, atzerriko hizkuntzaz beharrean ikasleen lehen hizkuntza ez den beste hizkuntza batez hitz egiten du. Haren esanetan, CLIL hezkuntza metodologia bat da, non hizkuntzen eta beste irakasgai batzuen ikaskuntzek lotura kurrikular bat duten. Ikasleek hizkuntzen ingurukoak ez diren irakasgai edota gai batzuk ikasten dituzte, haien lehen hizkuntza ez den hizkuntza baten bitartez (Sigmund, 2005: 20)

Garbi da beraz, CLILez ari garenean, bai hizkuntzak eta baita edukiak ere lantzen direla. Baina zenbateko garrantzia ematen zaio atal bakoitzari metodologia honetan?

Atal honetan ere iritzi ezberdinak daude. Sigmund-ek dio, CLILez hitz egin dezakegula, klaseen ehuneko 25a ikasi beharreko hizkuntzan ematen direnean (Sigmund, 2005: 20). Y.L. Teresa Ting, Calabriako (Italia) unibertsitateko irakaslea, berriz, CLIL orekatuaren aldekoa da, hau da, %50 edukiak eta %50 hizkuntzaren alde egiten du (Ting, 2010: 3).

¹ In < <http://www.isabelperez.com/clil.htm>>

Marsh-ek, ostera, dio CLILen beti egon behar duela fokatze bikoitza, edukietan eta hizkuntzan, nahiz eta hau %90-10ekoa izan (Marsh, 2002). Hala ere, ikuspuntu honen aldeko kritikarik egiten duenik ere bada, izan ere, zaila da imajinatzea CLIL metodologia erabili gabe ere atzerriko hizkuntzako klase bat, non %10a ez dagoen nolabaiteko edukietan fokatuta. (Cenoz *et alii*, 2013)

Jasone Cenoz-ek eta beste batzuek 2013. urtean idatzitako “Critical analysis of CLIL: taking stock and looking forward” artikuluan (Cenoz *et alii*, 2013), CLILen inguruan emandako hainbat definizio eta ezaugarri ezberdin biltzen dira. Artikuluan biltzen den moduan, helburuen aldetik, ikasleen aldetik, irakatsitako hizkuntzaren aldetik, edukiei eta hizkuntzari emandako garrantziaren aldetik eta baita beste pedagogia arrazoi batzuen aldetik ere, CLIL kontsidera daitezkeen klaseen artean oso ezaugarri desberdinak aurkitu daitezke. Horregatik, haien esanetan, CLIL “aterkin” (ingelesez “umbrella”) termino gisa erabil daiteke, haren azpian ikuspuntu ezberdin asko edota aldagai asko batzen dituelako. “Aterkin” termino horrek, bere barnean murgiltze osoak, murgiltze partzialak, CLIL kanpamenduak, ikasle trukeak, hezkuntza eleanitza,... hartzen ditu.

2.1.CLIL-ak konbinatzen dituen lau elementuak

Nahiz eta CLIL termino zabala izan, eta aldagai asko bildu, badira CLIL klase guztiek biltzen dituzten lau elementu komun. Hauek CILT web orrialdean aurkitu daitezke.


CILT² Erresuma Batuko hizkuntzetako zentro nazionala da. Haien helburua hizkuntzen eta erlazio internazionalen garrantziaz kontzientea den eta hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gai den gizartea eraikitzea da, eta horretarako hainbat proiektu dituzte martxan. Haien web orrialdean, hezkuntzan dauden proiektu eta metodologiaren informazio ugari ere badago. Bertan, CLIL klase batek konbinatzen dituen 4 elementuak³ zeintzuk diren azaltzen du (ikus 1.irudia):

- Edukiak (Content): ezagutza, trebetasun eta ulermenaren progresioa, definituriko curriculum bateko elementu espezifikoekin erlazionaturik.
- Komunikazioa (Communication): hizkuntza ikasteko erabiltzen, hizkuntza erabiltzen ikasten den bitartean.
- Ezagutza (Cognition): Hizkuntza, ikasteko eta ideien, pentsamenduen eta baloreen bitarteko izateko.
- Kultura (Culture): ikuspuntu alternatiboak eta partekatutako ulermenak lantzen ditu

² <http://www.cilt.org.uk>

³ Ingelesezko hasierako hizkiez eginiko akronimoa: *the four C-s*: Content, Communication, Cognition, Culture

ikasleak, besteekiko eta norberarekiko kontzientzia handiagoa suposatzen duena.
(CILT⁴)



1.irudia. The 4C's framework for CLIL (Coyle, 2005)

Web orriak dioenaren arabera, lau elementu horiek erabili behar dira oinarri moduan CLIL klase bat diseinatzerakoan. Lau elementu horien ingeleseko hitzen hasierako lau hizkiak hartuta “The four C-s” akronimoa sortzen da. Termino hori, CLIL gaian aditua den Do Coylek (Erresuma Batua) asmatu zuen. John Masih-k 1999. urtean idatzitako “*Learning through a foreign language: models, methods and outcomes*” liburuan, "Supporting Students in Content and Language Integrated Contexts: Planning for Effective Classrooms" izeneko kapitulua idatzi zuen Do Coylek; eta bertan hurrengoak zioen gai honen inguruan:

I would suggest that it is through progression in the knowledge, skills and understanding of the content, by engagement in associated cognitive processing, interaction in the communicative context, and a deepening awareness and positioning of cultural self and otherness, that learning takes place. (Coyle, 1999: 60)

2.2. CLIL klaseetako printzipio, teknika eta estrategiak

Doris Sigmund-ek, nahiz eta CLILen barruan metodologia estandar bakarrik ez dagoela esan, CLIL klaseetan erabili eta egokitu daitezkeen printzipio, teknika eta estrategia batzuk zerrendatzen ditu:

- Ikasteko testuinguru atsegin bat sortu, non ikasleen beharrianak irakaste prozesuaren erdian dauden.
- Klaseetan indibidualizazioa eta desberdintzea sustatu.
- Ikus-entzunezkoak erabili, ulermena errazteko: irudiak argazkiak,
- Errepikapenak erabili, CLILen oinarritzko ezaugarritzat hartzen baita.

⁴ In <http://www.cilt.org.uk/secondary/14-19/intensive_and_immersion/clil/principles_of_teaching.aspx>

- Ebaluazio tresna berrietan lan egin eta ulermena neurtzeko azterketa berriak garatu.
- Irakasteen gehiegizko sinplifikazioa ekidin.
- Eduki garrantzitsuenean zentratu.
- Irakurtzeko estrategia eraginkorretan atentzioa ipini.
- Ikasleen ikasteko estilo ezberdinak eta inteligentzia anitzen teoria kontutan hartuz.
- “Communicative Language Teaching” metodologia erabiltzea (hizkuntzaren aspektu komunikatiboan zentratzen den metodologia): role play, drama, ...
- Lan proiektuak eta diziplinarteko kooperazioa erabili.
- Materialen banatzea sustatzea.
- Benetako materialarekin lan egitea (helburua den hizkuntzaren herrialdeetako eskola eta irakur liburuak erabiltzea).
- Internet eta CD-ROMak erabiltzea.

(Sigmund, 2007: 95)

2.3. CLIL metodologiaren onurak

CLIL klaseetan aipatutako teknikak erabiltzen direnez eta aurretik azaldutako 4 elementuak biltzen direnez gero, adituen arabera, CLILEk ikasleentzat mesedegarriak diren hainbat ezaugarri ditu. .

Erresuma Batuko hizkuntzetako zentro nazionala den CILT web orrialdean, CLILEk ikasleentzat onurak hauek dituela aurkitu daiteke:

- Motibazioa eta arreta sustatzen ditu, irakasgaiko edukietan ikasleen aurrerapena normalean baino azkarragoa izatea posible egiten dutenak.
- Hobekuntza bai edukiaren aldetik eta baita landutako hizkuntzaren aldetik.
- Hiritartasunaren curriculumarekiko lotura estuagoak (bereziki benetako materialen erabileraren bitartez, gai desberdinetan ikuspegi alternatibo bat erakusten dutenak).
- Transferigarriak diren trebetasunen eta jakintzaren balioaren kontzientzia handiagoa.
- Konfiantza handiagoa.

(CILT⁵)

3. CLIL metodologiaren sortzea eta garatzea

Hurrengo ataletan, CLIL metodologia nola sortu zen eta honek izan duen garapena azaltzen da. Lehenengo eta behin, metodologia hau Europatik datorrenez gero, European izandako bilakaera dago azalduta. Ondoren, Espainiar estatuan instituzioen aldetik,

⁵ In: <http://www.cilt.org.uk/secondary/1419/intensive_and_immersion/clil.aspx>

CLIL erabiltzeko hartutako erabakiak aipaturik daude, metodologia honek estatuan duen garrantzia ezagutarazteko asmoz. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan atzerriko hizkuntzen irakaskuntzak, eta bereziki CLIL metodologiak, izandako bilakaera eta gaur eguneko egoera adierazita daude. Horretarako, alde batetik, gobernuaren ekimenak zeintzuk izan diren erakutsita daude, eta beste alde batetik, CLILen inguruan jendartearen iritzia zein den erakutsi nahi izan da. Iritzi hau ezagutarazteko, EAEn bakarrik ez, baizik eta Euskal Herri osoan garrantzi handia duen Ikastolen Elkartearen iritzia erabili da.

3.1. CLIL metodologiaren sortzea eta garatzea Europan

Eurydicek argitaratutako *“Aprendizaje Integrado de Contenidos y Lenguas (AICLE) en el contexto escolar europeo”* liburuaren arabera (Baïdak *et alii*, 2006) atzerriko, eskualdeko edo hizkuntza gutxitu batean irakatsi diren curriculumeko irakasgaiak orain dela hamarkada batzuetatik existitzen dira. Liburu honek CLILek Europan izandako garapena laburbiltzen du bere lehen orrietan.

1970.eko hamarkadatik aurrera, linguistikoki ezberdinak ziren eskualdeetan ematen zen batez ere (Euskal Herriaren kasua den moduan) edo hiri handietan. 70. eta 80. hamarkadetan, material honen garapena, Kanadan egin zen murgiltze programaren esperimentuak eragindakoa izan zen batez ere. CLIL akronimoa 90. hamarkadan hasi zen indarra hartzen, orduan hasi baitzen murgiltze partzialaren antzekoak ziren irakasteko erak ezagutzeko modurik nagusia izaten. Urte haietan Europar instituzioak irakasteko metodo berrien sorkuntzaren beharra ikusi zuen. Behar hau *Lingua* programan islatuta ikusi zen (Kontseilu Europarra, 1989: 24-32), zeinek azpimarratzen zuen, atzerriko hizkuntzetan formatzen duten metodoetan berrikuntzak sustatzeak zuen garrantzia. Testuinguru honetan, ekimen desberdinak bultzatu dira EBtik CLILen eremuan.

CLILi erreferentzia egiten dion lehenengo legeotariko bat 1995ko Kontseiluaren Ebazpena da (Europako Batzordea, 1995). Metodo berritzaileak sustatzen ditu, eta horren barruan, hizkuntzak ez diren beste irakasgaiak atzerriko hizkuntzan irakastea sustatzen du batez ere, horrela irakaskuntza elebiduna eskainiz. Horretaz gain, hizkuntza irakasleen formatze kalitatea hobetzea ere proposatzen du, goi mailako ikasketetan dauden ikasleei kideak diren estatuetara mugitzea erraztuz, han hizkuntza laguntzaile moduan izateko.

Urte berean, bere hezkuntza eta formakuntzaren Liburu Zurian, Europako Batzordea

EB-ko hiritar guztiek Europako hiru hizkuntza erabiltzeko gai izaten lagunduko zuten ideia berritzaileen eta praktika eraginkorrenen garrantziaz mintzatu zen (Europako Batzordea, 1995).

2001. urtean, Hizkuntzen Europar Urteak, hizkuntzen ikaskuntzaren sustapenak duen garrantzian fokatzera lagundu zuen. Eleaniztasuna metodo ezberdin askorekin lortu daitekeela adierazi zuten, CLIL metodologia horietariko bat bezala hartuz.

2002ko martxoan, Bartzelonan bildu zen Kontseilu Europarra, eta hizkuntzen ikaskuntza bultzatzen saiatu zen, Estatu Kideei eta Europako Batzordeari etengabeko esfortzu bat eskatuz, adin oso goiztiar batetik atzerriko bi hizkuntzen irakaskuntza bermatzeko. Eskakizun horren ostean (2002ko otsailean Hezkuntza Kontseiluak egindakoarekin batera), Batzordeak 2003. urtean 2004-2006 Ekintza Plana⁶ ezarri zuen. Plan horretan, CLIL hizkuntzen irakaskuntza garatzeko metodo berritzaile bezala agertzen da eta zehazten da CLILEk “Batasunak dituen hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko helburuetan funtsezko ekarpen bat burutu behar du”ela. Orduan, hizkuntzak eta edukiak batera ikasteko irakaskuntza sustatzeko ekintza batzuk diseinatu ziren, non gaur egun ere jarraitzen duen Eurydice sarea (<http://www.eurydice.org>) agertzen den, besteak beste.

2005eko maiatzeko Hezkuntza Kontseiluan, Luxenburgoko lehendakariak “Europar Ikasgelan izandako Aldaketa: Hezkuntza Eleaniztasunaren Potentziala” sinposioko emaitzen berri eman zuen. Ondorioen artean, hezkuntza maila ezberdinetako ikasleak CLIL motako irakaskuntzan parte hartzera bultzatu beharra zegoela azpimarratu zen eta animatzen zen irakasleoa CLILen prestakuntza berezia jasotzera (Baïdak et alii, 2006: 7-9).

Ekintza horietaz gain, beste proiektu batzuei ere erreferentzia egin behar zaie. Hauen artean hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntzarako ekimen berritzaileentzako Europar zigilua dago (lehenengoz 1998.urtean eskainia) eta EuroCLIC europar sarea (hizkuntzak eta edukiak barne hartzen dituzten klaseak), irakaslez, ikertzailez, formatzailez eta CLILen ezarpenean interesaturik dauden beste eragile batzuez osatuta dagoena eta 1996. urtetik Europar Komunitateak kofinantzatzen duena. (Baïdak, et alii, 2006: 7-9)

⁶ “Hizkuntzen irakaskuntza eta aniztasun linguistikoa bultzatzea: 2004-2006 Ekintza Plana”, Batzordearen komunikatua, Kontseiluari, Europar Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte lantaldeari eta 2003.07.24ko Eskualde lantaldeari .

3.2. CLIL espainiar estatuan

Spain is rapidly becoming one of the European leaders in CLIL practice and research. The richness of its cultural and linguistic diversity has led to a wide variety of CLIL policies and practices which provide us with many examples of CLIL in different stages of development that are applicable to contexts both within and beyond Spain. (Coyle, 2010: 8)

Espainiar Estatuan, dituen ezaugarriengatik, egoera ezberdinak aurkitzen dira. Izan ere, Ceuta eta Melilla kontutan izan barik, 17 autonomia-erkidegoz osatuta dagoela kontutan izan behar da, non, nahiz eta Hezkuntza Dekretu Organikoak estatu osorako marko komuna osatu, autonomia bakoitzak haien hezkuntza sistema administratzeko boterea duen.

Egoera ezberdinak asko aldatzen dira autonomia-erkidego batetik bestera, baina hala ere, tratatzen diren hizkuntzen arabera, bi testuinguru nagusitan banatu daitezke:

- Erkidego elebakarrak, non gaztelania hizkuntza ofiziala den eta hori den funtsean jendartean erabiltzen den hizkuntza bakarra. Erkidego hauetan, hezkuntzaren eremuan, curriculumaren zati bat gaztelaniaz ematen da eta baita atzerriko hizkuntza baten edo bitan ere, CLIL erabiltzen denean.
- Erkidego elebidunak, non gaztelera hizkuntza ofiziala den erkidego autonomoko beste hizkuntza koofizial batekin batera, eta beraz jendartean bi hizkuntza erabiltzen diren kopuru esanguratsuan. Kasu horretan izango genituzke Euskara, Katalana, Galiziera eta Balentzianoa, non bi hizkuntzak derrigorrezkoak diren maila ez unibertsitarioetan. Erkidego hauetan, hezkuntza bi hizkuntza koofizialetan ematen da, eta atzerriko hizkuntza bat edo bitan CLIL ezartzen denean.

Erkidego elebidunetan 1980. urtetik aurrera derrigorrezko hezkuntza sistemetan erkidegoko hizkuntzei irakaste tresna moduan emandako sostenguak, eragin bikoitza izan du hezkuntzan. Alde batetik, eskualde elebidunetan urteetako praktiken ostean lortutako trebetasunak, programen diseinu eta inplementaziorako eredu ezin hobea suposatu du eskualde elebakarrentzako, sistema elebidunak antolatzeko orduan. Beste alde batetik, jadanik bi hizkuntza curriculumean sartu behar diren eskualde elebidunetan, CLIL metodologia aukera egokia da ikasleek atzerriko hizkuntza hirugarren hizkuntza gisa ikas dezaten (Lasagabaster, eta Ruiz de Zarobe, 2010).

CLILEkiko joera finkatzen ari da erkidego autonomoetako hezkuntza sistemetan, izan ere gure gizarte globalizatuaren behar berrietara moldatzen saiatzen baitabilta denak ere. Hala ere, erkidego guztietan ez da programa modu berean ezarri.

Andaluzian, “Plan de Fomento del Plurilingüismo”⁷ ezartzen ari dira, 72 ekintza biltzen dituen. Planak *European Language Label* saria irabazi zuen 2006.urtean. Erabilitako baliabideek erakusten dute planaren seriotasuna, izan ere, 141 milioi euro zuzendu ziren, giza baliabideak eta baliabide teknikoak ikertzeko, irakasleen formakuntzarako, mugikortasunerako eta curriculum diseinuaren berrikuntzarako (Lorenzo, 2010:4).

Errioxan aurkitu daitezkeen CLIL ekimenak “Proyectos de Innovación Lingüística en Centros” (PILC) eta espainiar estatuko hainbat erkidegotan ezarri den Eredu Elebiduna dira. PILC proiektua 2004-2005 ikasturtean hasi zen eta parte hartzeari dagokionean izan duen arrakasta nabaria da, hasierako urtean 10 ikastetxek eta 40 irakaslek bakarrik parte hartu zuten bitartean, 2008-2009 ikasturtean 46 ikastetxek eta 236 irakaslek hartu baitzuten parte. Eredu Elebiduna, 2008-2009 ikasturtean jarri zen martxan Errioxako erkidegoan, maila ez unibertsitarioko ikastetxe publiko zein pribatuetan (Fernández, 2010).

Madriilen edo Balear uharteetan, bestalde, Hezkuntza, Kultura eta Kirolen Espainiar Ministerioak eta “British Council”-eak ‘MEC/ British Council Agreement’⁸ delakoa sinatu dute, “Bilingual and Bicultural Project” delakoa ezartzeko. Proiektu honen helburua eskola publikoen ikasleen ingeles maila hobetzea da, elebiduna eta bikulturala den curriculum bat jarraituz (Lasagabaster, eta Ruiz de Zarobe, 2010).

Extremadurako Hezkuntza agintariak (Consejería de Educación. Dirección de Calidad y Equidad Educativa) “Proyectos de Sección Bilingüe” deritzenak sustatzen ari dira, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan CLIL esperientziak ezartzeko. (Lasagabaster, eta Ruiz de Zarobe, 2010)

Eleaniztasuna bultzatzen duten eskualde elebidunen artean, Euskal Autonomia Erkidegoa, Katalunia (Navés, eta Victori, 2010), Valentziako Komunitatea (Pèrez-Vidal, eta Juan-Garau, 2010) eta Galizia (San Isidro, 2010) ditugu, baina metodo eta eredu desberdinak erabiltzen dituzte denek.

Agerikoa da beraz, estatu mailan badirela CLIL bultzatzen duten ekimenak, eta CLILEk bere lekua irabazia duela estatuko erkidego gehienetan.

⁷ In

<http://www.juntadeandalucia.es/averroes/averroes/html/portal/com/bin/contenidos/B/InnovacionEInvestigacion/ProyectosInnovadores/Plurilinguismo/Portada/1182945265640_wysiwyg_plan.pdf>

⁸ In <http://www.britishcouncil.org/spain/sites/default/files/pdfs/evaluation_online_supplement.pdf>

3.3.Euskal Autonomia Erkidegoko egoera

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1982. urteko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak⁹ ezarri zuen nahitaezkoa zela bi hizkuntzak ikastea, hau da, euskara eta gaztelania, eta horretarako ezaugarri ezberdinak dituzten hezkuntza-programa edo “ereduak” erabil zitezkeela, familiek libreki aukeratutakoaren arabera. Hiru eredu zehaztu ziren:

- A eredu: irakasgai guztiak -euskara izan ezik- nagusiki gaztelaniaz ematen dira.
- B eredu: beste irakasgaiak emateko, gaztelania zein euskara erabiliko da. Gaztelania, printzipioz, irakasgai jakin batzuetarako baino ez da erabiliko, hala nola irakurketa, idazketa eta matematika. Euskara gainerako irakasgaietarako erabiliko da: esperientziak, plastika eta dinamika, batez ere. Horrez gain, euskara eta gaztelania ikasgai moduan ere erabiliko dira, eta astean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen dituen orduak eskainiko zaizkie.
- D eredu: irakasgai guztiak, -gaztelania izan ezik- nagusiki euskaraz emango dira, eta euskara ikasgai moduan ere landuko da.

(EUSTAT¹⁰)

Hiru hamarkada igaro dira ordutik eta 2011 arteko datuek erakusten dutenaren arabera, familia gehienek B eta D ereduak aukeratu dituzte, batez ere D eredu (Eusko Jaurlaritza, 2010: 11). Dena den, Eusko Jaurlaritzak dokumentu berean aipatzen duen bezala “Zalantzarik gabe, euskarak ekintza eta laguntza espezifikoak behar ditu oraindik ere”, eta horregatik azken urteetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hainbat ekintza eta proiektu egin ditu, eskolaren esparruan hizkuntzak erabil eta irakats daitezen sustatzeko (Eusko Jaurlaritza, 2010: 13).

3.3.1. Gobernuaren ekimenak

1996. urtean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, atzerriko hizkuntzako gaitasuna hobetzeko saiakuntza eleaniztasun bat jarri zuen martxan 20 ikastetxetan (Eusko Jaurlaritza, 2010: 13). Saiakuntzan hiru modalitate aurkezten ziren: ingelesa goiz sartzea, 4 urtetik aurrera (120 ikastetxek eskatua eta 13ren eskaria onartua); Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitartean ingelesa irakasteko ordutegia handitzea (15 ikastetxek eskatua eta 3 ikastetxetan onartua); eta Derrigorrezko

⁹ In < http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/Euskararen_Legea_itzlpn_berria.pdf>

¹⁰ In < http://eu.eustat.es/ci_ci/documentos/opt_0/tema_279/elem_1521/definicion.html#axzz330LKE8z2>

Bigarren Hezkuntzan ingelesa irakasteko ordutegia zabalago egitea (15 ikastetxek eskatua eta 3 ikastetxetan onartua). Esperientziaren helburuetako bat hiru modalitateetatik egokiena zein zen aztertzea zen, erkidegoko gainontzeko ikastetxeei hedatzeko asmoz, baina errealitateak eman zuen erantzuna ebaluazioak egin aurretik. Izan ere, 2007an Eusko Jaurlaritzak “Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza hirueledunerako dauden plan pilotuei buruz” galderari emandako erantzunean azaldutakoaren arabera¹¹, lehenengo modalitatean parte hartzeko eskatu zuten ikastetxea guztiek, eta horietariko asko onartuak izan ez zirenez, zituzten baliabideekin eta haien ardurapean, ingelesa goiz sartzeko aukera abian jartzea erabaki zuten (Eusko Jaurlaritzak, 2010: 13).

Gero, aurreko saiakuntzetatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzaren bidez, 2000-2003 hirurtekorako Hizkuntza Prozesuetarako Programa ezarri zuen. Horren barruan beste programa hauek zeuden: euskararen erabilera normalizatzekoa, eleaniztasunarena, hizkuntzen tratamendu integratuarena eta hizkuntza-proiektuarena. (Eusko Jaurlaritzak, 2010: 13)

2003tik aurrera, curriculum-arloak atzerriko hizkuntzan (nagusiki ingelesez) irakastea proposatzen zuen saiakuntza eleaniztuna egin zen Bigarren Hezkuntzako 20 ikastetxetan. ISEI-IVEI¹²-k ebaluatu zuen saiakuntza hura, ondorio oso positiboekin, eta ebaluazioa bere web-orrian argitaratu zuen izenburu honekin: “Ikasle hirueledunak bigarren hezkuntzan: egoera berri bat”¹³. “Hezkuntza Eleaniztunak erabilitako transmisio-hizkuntzaren barneratze-erritmoa areagotzen du, eta hizkuntza- eta komunikazio-kompetentzian lortzen den irabazia nabaria da” zen ondorioetako bat; eta emaitzei dagokionez, honela zioen: “ikasleek ingelesez ikasitako arloen edukiak modu bertsuan barneratzen dituztela eta, zenbaitetan, esperientzian parte hartzen ez dutenek baino hobeki”. (ISEI-IVEI, 2007: 49)

2010. urtean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Euskadiko ikasleek hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna curriculumeko hizkuntza guztietan nabarmen hobetzeko helburuarekin Hezkuntza Marko Hirueleduna saiakuntza-proposamena atera zuen. Proposamen honek hizkuntzak curriculum-educien bidez irakastea sustatzen du, hau da, CLIL metodologia erabiltzea (Eusko Jaurlaritzak,

¹¹ In <<http://www.parlamento.euskadi.net/irud/08/00/007665.pdf>>

¹² ISEI-IVEI: Irakas-sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundea- Instituto vasco de evaluación e investigación educativa: <http://www.isei-ivei.net/>

¹³ In <<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/Ikas-hirueledun-azk.pdf>>

2010: 17). Honen helburua da “Erkidegoko hizkuntza ofizialak jakitea (euskara eta gaztelania, ikasle gehienen H1 eta H2), eta atzerriko hizkuntza batean jakintza aurreratua izatea, oro har, ingelesean” (Eusko Jaurlaritza, 2010: 20).

Saiakuntza-proposamenean parte hartzen duten ikastetxeek curriculumeko irakastorduen %20 gutxienez landu behar dituzte hizkuntza bakoitzean, denbora guztiaren %60, eta ikastetxe bakoitzak erabaki dezake gainerako %40a zein hizkuntzatan landu (Eusko Jaurlaritza, 2010: 21).

Proposamen honek aurkako jarrerak izan ditu, EAE-n elebitasuna bermatzen ez duela esaten dutenak, euskararen egoerarengatik kezkatuta. Gai eta iritzi horiek lantzen ditu, esate baterako, Maier Ugartemendiak, 2011.urtean idatzitako “Hezkuntza Marko Hirueledunaren Ondorioak” lanean (Ugartemendia, 2011: 90).

2010-2011 ikasturtean 40 ikastetxetan hasi zuen HMH I proba Jaurlaritzak, EAeko hiru lurraldeetako ikastetxe publiko nahiz itunpekoetan. Hurrengo ikasturtean (2011-2012), beste deialdi bat zabaldu zuten, HMH II, eta 63 ikastetxe publiko (LH-ko 46 eta DBH-ko 17) eta itunpeko 49 (LH-ko 30 eta DBH-ko 19) onartu ziren (ISEI-IVEI, 2014: 5).

Programa honen datuak 2014ko maiatzean argitaratu ditu ISEI-IVEI-k “Hezkuntza Marko Hirueledunaren esperientziazko prozesuaren ebaluazioa” izenarekin. Ebaluazio horretan ondorioztatzen da, esperientziazko prozesuak erakutsi duela Matematikarako konpetentzian, Zientzia-kulturarako konpetentzian eta Irakurmenean, gaztelaniaz eta euskaraz ez dagoela lehen baino emaitza txarragorik, eta Ingelesezko hizkuntza-komunikazioan, berriz, irabazia handia dela (ISEI-IVEI, 2014: 69).

Beraz, badirudi HMH-ak ez diola euskarari kalterik egiten, baina hala ere, susmo horietakoak direnak oso oker ez dabiltzala ere esan daiteke ondorio honi kasu eginez “badirudi ingelesean eta euskaraz, badagoela hizkuntza horiek dituzten presentzia-orduen gutxieneko atalase bat emaitzetan igoera lortu nahi bada, eta ez, ordea, gaztelanian” (ISEI-IVEI, 2014: 69).

Azkenik, esperientziaren emaitzak positiboak direla ematen du, baina batzuen arabera behintzat zalantza punturen bat badago oraindik, ea euskarak jendartean duen presentziak nahikoa bermatzen ote duen ikasleek hizkuntza horretan komunikazio gaitasun egokia lortzea.

3.3.2. Ikastolen elkarteak

Hizkuntzen ikas-irakaskuntza dela eta, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioari (EHIK) dagokienez, 1990.eko hamarkadan, hezkuntza-berrikuntzaren prozesu

orokorrak ekarritako hausnarketaren baitan, ikastolek beren hizkuntz helburuak berrikusteko eta zabaltzeko beharra ikusi zuten; eta elebitasunaren ordeztu, eleaniztasuna izango zen haien helburu berria. Testuinguru horretan, 1991-92 urteen artean Eleanitz proiektua sortu zen, eskola eleaniztunaren ereduak garatzeko euskara ardatz nagusi izango zuena (EHIK, 2009: 22).

2000. urtean ikastolen sareak Ikastolen Hizkuntza Proiektua jarri zuen abian, non ikastolek marko orokor bat garatzen duten, eta ikastolako hizkuntza bakoitzaren inguruan sortutako proiektuak uztartzen dituzten (EHIK, 2009: 23).

2009. urtean, Ikastolen elkarteak bere Hizkuntza Proiektua berriki zuen, eta bertan ikastoletan eta euskal eskoletan hizkuntzen inguruan ematen ari zen aldatetaz honakoa zioen: “Gaur egun, ikastolak eta euskal eskola birdefinizio prozesu batean murgilduta daude. Horren ondorioz, hizkuntz ereduak gaintitu eta hizkuntzen kudeaketarako eredu berriak mahairatuko dituzten bestelako proposamenak garatzen ari dira” (EHIK, 2009: 24).

Proposamen horien artean, Ikastolen Elkarteak ere CLILen aldeko jarrera erakusten du. Hizkuntza proiektuak diotenaren arabera, “euskal hezkuntzak hizkuntzekiko dituen erronkak ez dira makalak. Egungo gizarteak eskatzen duen goi mailako hizkuntza gaitasun eleaniztuna garatzen lagundu beharko du, betiere euskararen biziberritze-prozesuari lagunduz eta euskal kulturaren sustapena bermatuz” (EHIK, 2009: 31). Horretarako, Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua, hau da, CLIL, orientabidea hartzen dute, euren esanetan, horrela atzerriko hizkuntzekiko, momentuan duten testuinguru naturala baliatzen dutelako hizkuntza lana bideratzeko, ikasleen benetako komunikazio aukerak eta testuinguruak kontuan hartuz (EHIK, 2009: 77).

4. CLIL ikastetxe batean

Atal honetan, CLIL metodologia lantzen duen ikastetxe bat hurbiletik ezagutu nahi izan da. Horretarako, lehenengo eta behin, ikastetxeko irakaslea eta lehen hezkuntzako bigarren zikloan *Science* irakasgaiko arduradunari egindako elkarrizketa¹⁴ erdi-estrukturatu bat egin zaio, honek ikastetxeko errealitatea ezagutzeko aukera ematen duelako, eta baita instituzioaren aldetik CLILekiko zein jarrera dagoen ezagutzeko ere. Ondoren, ikasleek metodologiaren aurrean duten jarrera eta iritzia bildu da eta horretarako, lehen hezkuntzako 4.mailako ikasleei egindako galdetegi itxi bat erabili da.

¹⁴ Ikusi 1. eranskina

Atal hau oinarrituta dagoen ikastetxea Bilbon kokatuta dagoen ikastola euskaldun bat da. “D” ereduan irakasten du, baina hala ere, baditu irakasgai batzuk ingelesez ematen dituenak. Lehen Hezkuntzan *Science*, *Art English* eta *Robotics* dira ingelesez, CLIL metodologia erabiliz lantzen dituztenak.

2000. urtean hasi ziren metodologia hori lantzen. Lehenengo eta behin, *Science* ematen hasi ziren soilik. Emaitzak positiboak zirela ikusirik, 2007. urtean ikasturtean *Art English* ere ikastolako programazioan sartzea erabaki zuten. 2012. urtean, *Art English*-eko ordu horien barruan, aldaketa bat egin zuten 3.zikloan, eta gelak hilero txandakatu *Robotics* lantzen dute, hilabete bakoitzean gela batek lantzen duelarik.

4.1.Instituzioaren jarrera

J. R., ikastolako irakaslea eta lehen hezkuntzako bigarren zikloan *Science*-eko arduraduna den irakaslearen arabera, ikastolako irakasleek positiboki hartzen dute CLIL metodologia lantzea. Haren esanetan, irakasleak motibatuta daude metodologia aldaketarekin, gauza desberdinak egiteko aukera dutelako eta emaitzak onak direla ikusten dutelako.

Ikastetxean, Comenius¹⁵ programan hartzen dute parte. Programa hori, Europako dimentsioa¹⁶ indartzen duen proiektu bat da eta bertan ikasleek Europako beste leku bateko errealitateak ezagutzeko aukera dute. Horretaz gain, irakasleen trukeak ere egiten dira¹⁷.

Klasean erabilitako metodologiari dagokionez, proiektuka egiten dute lan, hiruhilabeteko osoan gai bat landuz (adb. “The universe”). Hasieran liburuak erabiltzen zituzten, baina orain irakasleek eurek sortzen dute materiala. J. R.-ren esanetan, horrek aukera ematen die materiala ikasleen beharrianetara moldatzeko. Liburuen desagerpenarekin batera, gurasoek materialak eskura izatearen segurtasuna galdu zuten, eta arazo honi aurre egiteko asmoz, *Science* eta *Art English*-eko blogak eta *Science* twitterra sortu ziren.

Klaseak ematerako orduan IKT-ak asko erabiltzen dituzte: diapositibak, bideoak, jolas interaktiboak,... Azalpenak ematerako orduan, diapositibak erabiltzen dituzte normalean, eta ondoren, azaldutako edukiak hobeto lantzeko, fitxa batzuk egiten dituzte, azaldutako edukiakin zerikusia dutenak. Teknologia berriez gain, ariketa dinamikoak eta motibagarriak egiten saiatzen dira eta ikasleak beren inguruko munduarekin

¹⁵ < <http://www.britishcouncil.org/comenius-programmes.htm> >

¹⁶ < <http://www.vub.ac.be/gst/eurobio/9eb.html> >

¹⁷ <http://www.oapee.es/oapee/inicio/pap/comenius.html>

kontaktuan jartzen (esperimentuak eginez, azaldutako edukiak hobeto ulertu eta barneratzeko inguruko adibideak ipiniz,...).

J. R.-k aipatutakoaren arabera zailtasunen batzuk bai aurkitzen dituzte batzuetan. Ingeleseiz izaterakoan, abantaila bat material asko dagoela da, baina horren ondorioa da balio ez duen material asko egotea. Bestalde, IKT-ak asko erabiltzen dituztenez, sarea jausten denean edo ordenagailuarekin arazoren bat dutenean aukerako jarduerak egin behar dituzte (“B plana” atera behar dute).

Dena den, orokorrean, bai irakasleak, bai gurasoak eta baita ikasleen aldetik ere, metodologia honekiko jarrera positiboa dagoela ikusten du J. R.-k. Gainera, haren esanetan, emaitza positiboak lortzen dituzte bai hizkuntzaren aldetik eta baita edukien aldetik ere. Horren adibide moduan jartzen du, pasa den urtean egin zuten irteera batean, landareen inguruko azalpenak ematen ari zen monitoreari, ea azalpenak ingelesez eman ahal zituen galdetu ziotela ikasleek, eta bertako hiztegia ingelesez zekitela.

4.2. Ikasleen arabera

Instituzioaren ikuspegia ezagututa, ikasleek CLIL metodologiaren aurrean zein iritzi eta jokaera duten aztertuko da atal honetan. Horretarako, aurrerago esan bezala, galdetegi itxi bat¹⁸ egin da.

4.2.1. Galdetegiaren ezaugarriak

Galdetegia lehen hezkuntzako 4.mailako 25 ikasleri egin zaie eta David Lasagabasterren “*Trilingüismo en la enseñanza. Actitudes hacia la lengua minoritaria, la mayoritaria y la extranjera*” liburua erabili da erreferentzia gisa galderak formulatzeko orduan (Lasagabaster, 2003). Hala ere, egindako umeen adinera moldatua izan da galdetegia eta horregatik galdera sinpleak formulatu dira, eta erantzun posibleak, Lasagabasterren kasuan bost diren arren, galdetegi honetan hiru dira kasu gehienetan.

Era berean, “*aquiescencia*” izenarekin deitu izan den fenomeno gertatzeko posibilitatea (Lasagabaster, 2003: 423), hau da, erantzunetan beti baiezko erantzuna markatzeko joera, ez da kontutan hartu. Izan ere, gertakari hori ekiditeak galderak era konplexuagoan formulatzea eskatzen du eta horrek ikasleak nahastea eragin zezakeen.

Horretaz gain, galdetegiari erantzun dion ikasle kopuru mugatua eta haien ezaugarri nahiko homogeneoak ere (guztiak ikastetxe berean eta gelan berean ikasten baitute) kontutan izan beharrekoak dira, ondorioak ateratzeko orduan. Dena den, nahiz eta ikasle

¹⁸ Ikusi 2. eranskina

guztiak ikasgela berekoak izan, batzuk familia euskaldunekoak dira eta beste batzuk familia erdaldunekoak, horrek galdetegiari aberastasuna ematen diolarik.

Bestalde, ikasleek galdetegia era anonimoan osatu zuten, politikoki zuzenak diren erantzunak markatzeko joera ekiditeko. Dena den, galdetegiaren hasieran zehaztua zegoen ez zela erantzun zuzenik ez okerrik.

Emaitzak ateratzerakoan, aldagai garrantzitsua da ikasleek etxean erabiltzen duten hizkuntza. Izan ere, ikasleen testuinguru soziolinguistikoak eragina izan dezake, batez ere, hizkuntzek duten garrantziaz izan dezaketen iritzian, bereziki euskararen kasuan (Lasagabaster, 2003:415).

Azkenik, emaitzak aldagai horren arabera desberdindu badira ere, emaitza osoak ere aztertu dira, aldagai horrek izan dezakeen eragina baztertuta emaitzak zeintzuk diren ikusteko.

4.2.2. Galdetegiaren helburua

Galdetegiaren helburua ikasleen ikuspuntua aztertzea izan da, ikastetxean erabiltzen dituzten hiru hizkuntzei buruz, eta bereziki ingelesez ematen den ikasgaiaren inguruko iritzia eta informazioa jasotzea. Egindako galderekin ikasleek honako puntu hauen inguruan duten iritzia aztertu nahi izan da:

- Ea CLILekin ingeles gehiago ikasten den eta edukiak ikasterako orduan traba den edo ez (1 eta 2 galderak).
- Ea CLILek esfortzu handiagoa eskatzen duen (3 eta 4 galderak).
- Ea hizkuntzak ikastea garrantzitsua den (euskara, gaztelania, ingelesa) (5, 6 eta 7 galderak).
- Ea irakasgaiak ingelesez ikastea gustatzen zaien (8, 9, 10 eta 11 galderak).
- Ea ikasleen testuinguru soziolinguistikoak eraginik duen aurreko puntu horietan.

4.2.3. Galdetegiaren erantzunak

2. eranskinean ikus daitezke zeintzuk diren ikasleei egindako galdetegia osatzen duten galderak eta 1. taula honetan biltzen dira inkestaren erantzunak.

| Galderak | Etxean euskaraz (4 ikasle) | | | Etxean gaztelaniaz (9 ikasle) | | | Etxean bietan (12 ikasle) | | | Guztira (25 ikasle) | | |
|----------|-------------------------------|----|----------|----------------------------------|----|----------|------------------------------|----|----------|------------------------|----|----------|
| | Bai | Ez | Ez dakit | Bai | Ez | Ez dakit | Bai | Ez | Ez dakit | Bai | Ez | Ez dakit |
| 1 | 3 | 0 | 1 | 7 | 0 | 2 | 10 | 0 | 2 | 20 | 0 | 5 |
| 2 | 2 | 2 | 0 | 2 | 2 | 5 | 4 | 2 | 6 | 8 | 6 | 11 |
| 3 | 1 | 3 | 0 | 2 | 7 | 0 | 8 | 4 | 0 | 11 | 14 | 0 |
| 4 | 2 | 0 | 2 | 8 | 0 | 1 | 10 | 0 | 2 | 20 | 0 | 5 |
| 5 | 4 | 0 | 0 | 9 | 0 | 0 | 12 | 0 | 0 | 25 | 0 | 0 |
| 6 | 4 | 0 | 0 | 5 | 0 | 4 | 10 | 1 | 1 | 19 | 1 | 5 |
| 7 | 4 | 0 | 0 | 8 | 1 | 0 | 12 | 0 | 0 | 24 | 1 | 0 |
| 8 | 3 | 0 | 1 | 6 | 1 | 2 | 11 | 0 | 1 | 20 | 1 | 4 |
| 9 | Eus. 3 | | In. 1 | Eus. 3 | | In. 6 | Eus. 3 | | In. 9 | Eus. 9 | | In. 16 |
| 10 | 1 | 0 | 3 | 6 | 1 | 2 | 10 | 0 | 2 | 17 | 1 | 7 |
| 11 | 4 | 0 | 0 | 9 | 0 | 0 | 12 | 0 | 0 | 25 | 0 | 0 |

1.taula. Ikasleen erantzunak

4.2.4. Galdetegiaren ondorioak- ikasleen iritzia

Honako ondorio hauek 1. taulan agertzen diren emaitzekin ateratakoak dira.

- Etxean erabiltzen duten hizkuntza erabiltzen dutela ere, *Science*-ekin ingeles gehiago ikasten dutelako sentazioa dutela ondoriozta daiteke (25etik 20k hala erantzun dute 1. galdera), baina zientzien edukiak ikasteko orduan hizkuntza traba den seguru ez daudela (11 ikaslek ez dakitela erantzun dute 2. galderan, 8k baietz eta 6k ezetz).
- *Science* ingelesez ikasteagatik zailagoa den edo ez galderatik, ez dago ondorio garbirik ateratzerik, 11ek baiezkoa eman baitute eta 14k ezezkoa. Hala ere, *Science* ingelesez ikasteak eskatzen duen esfortzuak merezi duela pentsatzen dutela ondoriozta daiteke (20 ikaslek hala erantzun dute 4. galderan). Izan ere, ikasle guztiak dira ingelesa ikasteak duen garrantziaz kontziente, 5. galderaren erantzunak ikusita, denak ipini baitute ingelesa garrantzitsua dela.
- Orokorrean, 5, 6 eta 7 galderen erantzunak ikusita, ikasle guztiek 3 hizkuntzak ikastea garrantzitsua dela uste dutela pentsa daiteke. Hala ere, deigarria da etxean gaztelaniaz egiten duten ikasleek euskararen garrantziaren inguruan emandako erantzunak. Izan ere, bederatzitik lauk esan dute ez dakitela euskara ikastea garrantzitsua den edo ez. Erantzun horretatik ondoriozta daiteke, gaztelaniaz egiten duten ikasleek ez dutela euskara ikastearen garrantziaren horrenbesteko kontzientziarik. Etxean euskara erabiltzen duten guztiek berriz, 3 hizkuntzak ikastea garrantzitsua dela esan dute.
- Orokorrean, ikasle gehienei gustatzen zaie irakasgai batzuk ingelesez ikastea (20 ikasleri) eta askok (17 ikaslek) datorren urtean beste irakasgai bat ere ingelesez

ikasiko lukete aukerarik izanez gero. Datu hauek etorkizun ona iragartzen diote CLIL metodologiari. Bestalde, datorren urtean *Science* irakasgaia euskaraz edo ingelesez hartzeari dagokionez, gehienek ingelesez hartuko luketen arren (16 ikasle), euskaraz hartuko luketenak ez dira gutxi (9 ikasle). 16 ikasle horiek datorren urtean beste irakasgai bat ere ingelesez hartuko lukete, beraz CLILEkin gustura dauden ikasleak ingelesez irakasgai gehiago hartzeari ere ez liokete ezetzik esango.

Deigarria da baita ere, etxean euskaraz egiten duten ikasleen artean ikus daitekeela *Science* datorren urtean euskaraz egiteko nahirik handiena (4 ikasletik 3-k euskaraz egingo lukete datorren urtean) eta datorren urtean beste irakasgai bat ingelesez hartzeko zalantza gehien ere (4 ikasletatik 3k ez dakitela erantzun dute). Emaitza horiek bidea eman dezakete pentsatzeko familia euskaldunetako ikasleen aldetik dagoela irakasgaiak ingelesez ikasteko errezelo handiena.

- Azkenik, *Science* irakasgaia gustuko dutela erantzun dute denek. Beraz, nahiz eta ikasle batzuek euskaraz egitea izango luketen nahiago, ondoriozta daiteke ingelesez egiteak ez duela trabarik ipintzen irakasgaia gustukoa izateko.
- Aurreko ondorioak ikusita, ikasleen testuinguru soziolinguistikoak puntu batzuetan eragina duela interpretatu daiteke. Izan ere, badira bi puntu non ezberdintasuna suma daitekeen. Alde batetik, hizkuntzek duten garrantziaren galderaren aurrean dago ezberdintasuna, eta interpretatu daiteke familia erdaldunetako ikasleak ez daudela euskararen garrantziaz seguru (6. galdera). Bestalde, irakasgaiak ingelesez edo euskaraz ikasteko nahiaren orduan ere eragina baduela pentsa daiteke, etxean euskaraz aritzen direnen artean dagoelako irakasgaiak euskaraz ikasteko nahirik handiena.

5. Lanaren ondorioak

Lan honek uzten duen lehenengo ondorioa da nabaria dela egungo gizarteari aurre egiteko, atzerriko hizkuntzen jakintza beharrezkoa dela. Izan ere, globalizazioak ekarri duen egoera honetan nazioarteko hizkuntzen beharra handitu da (Marsh, 2006: 29). Behar honen kontzientzia agerikoa da hezkuntza sistemetan, izan ere, honi aurre egiteko ekimen ugari bultzatzen ari dira azkeneko urteetan, lanean ikus daitekeenaren arabera. Curriculum ofizialean ere, garrantzia handiagoa eman behar izan zaie hizkuntzei, eta hori bideratu ahal izateko metodologia berrien beharra sortu da. CLIL behar horri erantzuteko metodologia egokia dela ondoriozta daiteke, egungo irakaskuntzan

irabazten ari den lekua kontutan harturik. Lanean ikusi daiteke European zabaltzen ez ezik, Espainiako estatuan ere hedatzen ari dela, hainbat erkidegotan. Euskal Autonomia Erkidegoan ere gero eta gehiago ezartzen ari den metodologia da eta badirudi emaitza positiboak ematen ari dela, lanean komentaturiko ISEI-IVEI-k egindako “Hezkuntza Marko Hirueledunaren esperimentazio prozesuaren ebaluazioa” ikerketaren arabera (ISEI-IVEI, 2014).

CLILek EAEn gobernuaren sostengua du, Jaurlaritzak Hezkuntza Marko Hirueleduna proposatzen eta bultzatzen baitu, eta esan daiteke arrakasta ona lortzen ari dela jendartean, ikusirik zenbat ikastetxe sartu diren proiektu horretan. Ezin da ahaztu, halere, gizartearen alderdi batetik badela CLILekin etor daitekeenaren euskara gutxiesteko beldurra; dena den, Ikastolen Elkartea moduko erakunde ez instituzionalen aldetik ere CLIL ikuspegia bultzatzen da (EHIK, 2009).

Beste aldetik, ikastetxe baten eginiko azterketetatik ere ondorio batzuk atera ditzakegu (jakinda lanak badituela muga garbiak eta, beraz, lehen orientabide bat besterik ez direla). Alderdi instituzionaletik eta ikasleen ikuspuntutik analizatu dugu esperientzia. Alderdi instituzionaletik elkarrizketaren bidez jaso ditugun datuek adierazten digute orain dela urte batzuk hasiriko ekimenak emaitza onak eman dituela, gero eta irakasgai gehiago sartzen ari baitira metodologia edo ikuspegi honen ildoan. Gainera, gurasoen artetik jarrera positiboa dela esan daiteke egindako galdeketari kasu eginez, eta ikasleen erantzunetan ere jarrera positiboa ikusten da, oro har. Horrek esan nahiko luke esperientzia positiboki balioesten dela eta ildo horretan sakontzeko gogoia ondoriozta daiteke. Bestalde, azterturiko ikastetxeak orain artean hizkuntzen irakaskuntzaren alorrean egin dituen pausoak ikusirik, esan daiteke ikuspuntu eta planteamendu eguneratuak darabiltzala hizkuntzen trataerari dagokionez.

Analizaturiko ikastetxean esperientziak izan dituen aurrekariak eta orain arteko ibilbidea kontuan hartuta, eta gaur egun munduan hizkuntzen gaineko prestakuntzak hartu duen garrantzia, badirudi horrelako CLIL bidezko ekimenek etorkizun oparoa dutela gurea bezalako gizarteetan, eta zehazki, aztertu dugun ikastetxean ere bai.

BIBLIOGRAFIA

- Baïdak et alii, (2006): *Aprendizaje Integrado de Contenidos y Lenguas (AICLE) en el contexto escolar europeo*. Bruselas: Eurydice, 14-03-20an ikusia, hemen: <<http://bookshop.europa.eu/en/content-and-language-integrated-learning-clil-at-school-in-europe-pbNCX106001/>>
- Cenoz, et alii (2013): *Critical analysis of clil: taking stock and looking forward*. Oxford: Oxford University Press 2013
- Coyle, D. (1999): Supporting students in content and language integrated learning contexts: planning for effective classrooms. In J Masih (ed.), *Learning through a foreign language: models, methods and outcomes*. Londres: Centre for Information on Language Teaching and Research.
- Coyle, D. (2008): CLIL-A pedagogical approach from the European perspective in N. Van Dusen-Scholl and N.H. Hornberger (eds): *Encyclopedia of Language and Education*. Springer, pp. 97–111.
- Coyle D. (2010): “Foreword” in David Lasagabaster eta Yolanda Ruiz de Zarobe (Ed.), *CLIL in Spain: Implementation, Results and Teacher Training*, Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing.
- Crystal, D. (2004): *The Language Revolution*. Oxford: Oxford University Press
- Europako Batzordea (1995): *Teaching and Learning – Towards the Learning Society* [pdf], Bruselas: Europako Batzordea 14-04-22an ikusia, hemen: <http://europa.eu/documents/comm/white_papers/pdf/com95_590_en.pdf>
- Europako Batzordea (2004): *European language policy and CLIL* [pdf], Bruselas: Directorate-General for Education and Culture, 14-05-09an ikusia, hemen: <http://www.ua.gov.tr/docs/avrupa-dil-%C3%B6d%C3%BCI%C3%BC/finarep_en.pdf?sfvrsn=>>
- Europako Batzordea: Directorate-General for Education and Culture, Vocational Training and Language Policy (2005): *Europeans and Languages: A Eurobarometer Special Survey*, Bruselas: Europako Batzordea
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa (2009): *Ikastolen Hizkuntza Proiektua*. Bilbo: EHIK.
- Eusko Jaurlaritz (1982): *Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko legea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, 14-05-11an ikusia, hemen: <http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/Euskararen_Legea_itzlpenn_berria.pdf>
- Eusko Jaurlaritz (2007-2010): *Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum*. 175/2007 dekretua eta 97/2010 Dekretua. Vitoria-Gasteiz: EHAA-BOPV: 1029-2050
- Eusko Jaurlaritz (2010): *Hezkuntza Marko Hirueledunaren Dokumentazio Prozesua*. 2014-05-12an hartua, hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_dig_public/adjuntos/19_hizkuntzak_500/500013e_Pub_EJ_experimentacion_MET_e.pdf
- Fernandez A. (2010): *First steps of CLIL in a Spanish Monolingual Community: The Case of La Rioja*. In Lasagabaster, D. eta Ruiz de Zarobe, Y. (eds.): *CLIL in Spain: Implementation, Results and Teacher Training*, Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing
- ISEI-IVEI (2007): *Ikasle hirueledunak bigarren hezkuntzan: egoera berri bat*. Txosten exekutiboa.
- ISEI-IVEI (2014): *Hezkuntza Marko Hirueledunaren esperimentazio prozesuaren ebaluazioa*. Txosten exekutiboa.
- Janík, Tomáš(2004): *European Dimension in Education*, Brno: Paido
- Campos J.A. (2007): Iñaki Oyarzabal de Miguel jaunak, euskal talde popularreko legebiltzarkideak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, “Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza hirueledunerako dauden plan pilotuei buruz” idatziz erantzun ditzan galderak egin dizkio. Hona hemen erantzunak, Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, 14-05-13an interneten ikusia, hemen: <<http://www.parlamento.euskadi.net/irud/08/00/007665.pdf>>

- Kontseilu Europarra (1989): Kontseiluak 1989ko uztailleko 28an hartutako erabakia, Europar komunitatean atzerriko hizkuntzen ezagutza bultzatzeko ekimen programa bat ezartzen duena (Lingua) (89/489/EEC). Bruselas: Europar Komunitateen Eguneroko Ofiziala L239
- Kontseiluaren ebazpena, (1995): ikasketa kalitatearen eta Europar Batasuneko hezkuntza sistemetan dauden hizkuntza irakaskuntzen hobetzeari dagokiona, Bruselas: Eguneroko Ofiziala C 207
- Lasagabaster, David (2003): *Trilingüismo en la enseñanza. Actitudes hacia la lengua minoritaria, la mayoritaria y la extranjera*. Lleida: Editorial Milenio.
- Lasagabaster, D. eta Ruiz de Zarobe, Y. (2010): *CLIL in Spain: Implementation, Results and Teacher Training*, Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing.
- Lorenzo, F (2010): CLIL In Andalusia. In Lasagabaster, D. eta Ruiz de Zarobe, Y. (eds.): *CLIL in Spain: Implementation, Results and Teacher Training*, Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing
- Marsh, D. (2002): *CLIL/EMILE the European Dimension*. Finlandia: University of Jyväskylä .
- Marsh, D. (2006): *English as medium of instruction in the new global linguistic order: Global characteristics, local consequences*. Finlandia: University of Jyväskylä, 14-05-09 an ikusia, hemen:
<http://citeseerx.ist.psu.edu/viewdoc/download?doi=10.1.1.125.2388&rep=rep1&type=pdf>
- Navés, T. eta Victori, M. (2010): CLIL in Catalonia: An Overview of research Studies In Lasagabaster, D. eta Ruiz de Zarobe, Y. (eds.): *CLIL in Spain: Implementation, Results and Teacher Training*, Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing
- Pérez-Vidal eta Juan-Garau (2010): To CLIL or not to CLIL? From Bilingualism to Multilingualism in Catalan/Spanish Communities in Spain In Lasagabaster, D. eta Ruiz de Zarobe, Y. (eds.): *CLIL in Spain: Implementation, Results and Teacher Training*, Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing
- San Isidro X. (2010): An Insight into Galician CLIL: Provision and Results. In Lasagabaster, D. eta Ruiz de Zarobe, Y. (eds.): *CLIL in Spain: Implementation, Results and Teacher Training*, Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing
- Sigmund, D., (2005): *Reflections on Content and Language Learning (CLIL)*, Brno: Paido
- Sigmund, D., (2007): 08. Ready, steady go CLIL in Teresina Barbero (Ed.), *Comunicare le discipline nelle lingue straniere*, Torino: Atti del convegno
- Ting, Y. L. T. (2010): 'CLIL appeals to how the brain likes its information: examples from CLIL-(Neuro) Science,' *International CLIL Research Journal* 1: 1–18.
- Ugartemendia, M. (2011): Hezkuntza Marko Hirueledunaren Ondorioak, Andoain: BAT Soziolinguistika Aldizkaria, In
<http://www.soziolinguistika.org/files/Maier%20Ugartemendia.pdf>

WEB ORRIALDEAK

CILT The National Centre for Languages

<<http://www.cilt.org.uk> >

Eurydice- Network on education systems and policies in Europe

<<http://www.eurydice.org>>

Eustat- Euskal estatistika erakundea

<http://eu.eustat.es/idioma_e/indice.html#axzz33TanwM5I>

